

ERRIGINTZA

"Gizakume orok badau bizirako bear dauna nun-nai billatzeko eskubidea. Baiñan nor bere erritik beste erri batera irten bear orrek gaitz aundiak sortzen dauz, bai irten bear dabenentzat, bai irtendako oiek artzen dabezan erriarentzat. Gizadiaren eginbearra: norbakoitzarentzat bere errian nola eroso bizi asmatzea da".

Baiñan gure bertsolari batek ederki azaldu ebazan, bera oartzeke, XXIII Yon maitagarriaren gogoeta oiek. 1960'garren urtea. Extremadura'tik-eta jendea pilloka etortzen ari yakun aroa. Dagonillaren 15'ta. Zizurkil'go jaiak. Lazkao Txiki'k onela jarraitzen dautso punttu jartzailleak ipiñitako punttu oni:

"Extremadura dira - Kazerres Badajoz".

"Ez dakit joango diran - majiñat badatoz.

Danok senide gera, - ez nabil gorrotoz:

Etorri ez ba'lira - obe gendun askoz".

—Ederto, On Bixente. Guztiz-gutztiz egia, Lazkao Txiki'k orren dotore abestutako ori. Baiñan badogu Estremadura'tik eta gaiñerako erbesteetatik etorri yakuzan oiei zerbait eskertu bearra. Bikain lan egin dabe Euskalerrian. Emengo langille askok baiño bikainkiago. Gure gaurko aberastasunaren sorketan partaide izan dira. Badabe aberastan ortatiko atsegintasunean ere partaide izateko eskubidea.

—Bai, Pello Berritu! Ori ez dautsut nik ukatuko. Baiñan langille atzerritar oiek ere gogoan ondo gorde bear daben gauza da, Euzkadi'k aien bearra ba'eban, askoz aundiago zala aiek eben Euzkadi'ren bearra. Langille oiek, beren Aberrian, gosez il-zorian bizi ziran, eta gosez amorratzen etorri ziran beren aberri berri ontara. Euzkadi'k lana baiño geiago ere eman dautse: bizia eman dautse. Eta nolako bizia! Sekulan amestu ere egin ez ebena!

Oartu bitez, beraiek etorri ez ba'ziran, Portugal'dik, Afrika'tik, Errusi'tik, Txina'tik, eta Españameriketatik, millaka ta millaka etorriko zirala beste batzuk. Au da ba, munduko arazorik larriena: mundu zabal guzian, nun-lan-egin gutxi, -oso gitxi-, dala, eta alderantziz mundu zabal guztia nun-lan-egiñik ez daun jendez beterik aurkitzen dala.

Eta ori da ainzuzen Estremaduratik eta beste bee-aldeko lurraldeetatik oneera etorri diranei Euzkadi'k eman dautse-na: NUN-LAN-EGIÑA. Gaur munduan eman daitekean doairik onena, ederrena, baliotsuena, bearrezkoena.

—Ta, On Bixente, onera etorritako oiek jnola ordaindu daikeoe beren Aberri berri oni, dautseen zorra?

—Euskalerriko kulturaz jantzita beren buruak EUSKALDUN BIURTUZ.

LATIEGI'TAR BIXENTE

ARGIA

Argiaren argitan
pozik dago gogo
baratza erdian;
ederraren ederrak
gizona ezilkortzen
bizitza aurrian.

Zeru ortzetik dator
urrea dariola
eguzki oria;
gizona kantuz dabil
bedartza orlegian
pozaren bizia.

BASETXEA

Euzko etxe maitea
mendi egalez dago
urrez orraztua;
ixilik ta maitetsu
eder bera dario
askatasun sua.

Alderdi danetatik
mendi gailurrak daukaz
bakea zabaltzen;
eta etxe zuria
agurka guztien
eskarra agertzen.

GABON

Itxaropen aundia...
Gaizkatzaillea dator
zerutik lurrera;
galduta egoanak
gaur ikusi bear dau
Jauna bere erara.

Ez dator aundikeriz
biziaren Jaubea
gizonen artera;
maitasun utsa dana
gizon jantzita dator
lurraren gaiñera.

PAULIN

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK
ETA "ZER"

%,,



/ ALDIZKARI ONEN ARDURADUNAK
GABON ZORIONTSUAK ETA
2000n URTE EMONKORRA
OPA DAUTZUE GUZTIOI